



Bizkaiko gurasoen elkarteak

Bi urtekoen gelako laguntzaileak 2016-2017

Bazkide agurgarriak:

Matrikulazio-epaia amaituta eta gure eskoletan berriak diren familiak behar bezala informatzeko asmoarekin, informazioa eta hainbat gomendio helarazi nahi dizkizuegu.

1. Bi urteko haurren geletan irakaste-ordutegian diharduten laguntzaileak **EZ dira Hezkuntza Sailaren mendekoak.**
2. Hezkuntza Sailak uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 24. artikuluan zehazten diren bi urtekoen gelentzako baliabideak bidaltzeko ardura dauka:
 - Ikastetxeko talde bakoitzari tutore bat esleitzen zaio.
 - **Kreditu zehatz bat esleitzen da bi urtekoen gelei laguntzeko:**
 - Unitate (ikasgela) 1 edo 2 dituzten ikastetxeek irakasle erdi bat gehiago izango dute.
 - 3 edo 4 unitate (ikasgela) dituztenek, irakasle bat gehiago.
 - 5 unitate (ikasgela) dituztenek, irakasle eta erdi gehiago.
 - Kreditu gehigarri bat esleitzen zaie **2 eta 3 urteko** ikasleen haur-hezkuntzako ikasgela asko dituzten ikastetxeei, honela:
 - 5 edo 6 ikasgela dituzten ikastetxeei, irakasle erdi bat gehiago
 - 7 gela edo gehiago dituzten ikastetxeei, irakasle bat gehiago.
3. Baliabide horiek ematen diren helbururako erabili behar dira, hau da, «2 urtekoen ikasgelentzat».
4. Ez OOGek ez ikastetxeko zuzendaritzak ez dute erabakitzeko edo kontratatzeko eskubiderik. **Ez da derrigorrezkoa bi urtekoen gelentzako laguntzaileak kontratatzea.**
5. Familiak ez dute laguntzailerik kontratatzen ez Gipuzkoan ez Araban, eta Bizkaian adina baliabide dituzte.
6. Guraso-elkarteak arduratu izan dira laguntzaile horiek kontratatzeaz eta, ondorioz, hortik sortzen diren arazo guztien **erantzule** dira.
7. Kontratazioa egin arren, **ezin dira familiak ordaintzera behartu.** Elkartearen betebeharra da ordaintzea derrigorrezkoa ez dela jakinaraztea. Edozein familiak uko egin diezaioke ordaintzeari.



Bizkaiko gurasoen elkarteak

Bi urtekoen gelako laguntzaileak 2016-2017

8. Ordainketak ez egitearen edo berandu egitearen ondorioz, **elkarte asko egoera sostengaezin** batera iristen ari dira, **eta haiekin batera bazkide guztiak**, une horretan elkarteko kide ez diren familiei edo hurrengo urtean ikastetxea utziko duten familiei zerbitzu bat ematen dieten bitartean.
9. Ez ordaintzei elkartearen funtsekin egiten zaie aurre; hau da, elkartearen funtsekin 2 urteko ikasleek baino egiten ez duten jarduera bat ordaintzen da.
10. **Elkarteetako batzarrek ezagutu eta onartu behar dituzte** kontratazio-baldintzak, kontratuen amaiera-datak, luzapenak...

Hori dela-eta, gomendio hauek egiten dizkizuegu:

- Ez kontratatu laguntzaileak guraso-elkartearen kontura eta eskatu beharrezko baliabideak Administrazioari.
- Eskatu ikastetxeko zuzendaritzari bi urtekoen gelako familia berriei ikasturte-hasierako bileran argi azaltzeko ez dela derrigorrezkoa bi urtekoen gelarako laguntzaileak ordaintzea.
- Eskatu bilera horietan GEko ordezkariak parte hartzeko.
- Galdetu zer kontratazio mota (berritzeko baldintzak, baldintza ekonomikoak, iraupena, mugak...) dagoen zuen ikastetxean.
- Azaldu elkartearen batzarrean kontratazioei buruzko informazioa eta batzarrak erabaki dezala kontratazio hori egitea beharrezkoa den ala ez.

Gainera, honako hau gogorarazi nahi dizuegu:

Arartekoak, 2014ko martxoaren 6an, gomendio hau egin zion Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari: «**Ez ditzala baimendu hezkuntza-administrazioak ez diren langile laguntzaileak** Sailaren mendeko ikastetxeetako bi urtekoen geletan edo, bestela, **baliabide horiek, bere langileak erabiliz, Saileko ikastetxeetako bi urtekoen gela guztietara hedatu ditzala**».

http://www.bige.eus/wp-content/uploads/2014/06/2urtekolaguntzaileak_Ararteko.pdf

Informazio gehiago nahi baduzue edo gaiari buruzko zalantzaren bat argitu nahi baduzue, jarri harremanetan BIGErekin.